

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko



5 € · 2024ko urtarrila

284 znb

12-21

Burua
altxatzen

34-37

Bizipoza
eskola

38-44

'Sofiaren oparia'
dokumentala
landuz

50-53

Ama
hizkuntzen
aitortza

54

Atzeko atletik

Miren Ros eta Telmo Lazkano



16 urtetik aurrera sakelakoa
egokiago erabiltzeko prest egon
litezke nerabeak




Jan, Jolastu eta Lo Baserrian · Basoan

“Animaliarik dibertigarrienak eta txikienen
mundua modu jolastian elkartuta!”



Uzta gozoa

Baserrian eta basoan jolastu eta lo egiten duten animalien mundua. Baserrian eta basoan jolastu eta lo egiten duten animalien mundua. Baserrian eta basoan jolastu eta lo egiten duten animalien mundua.



TTARTTALO
www.ttarttalo.eus

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko

Argitaratzailea: XANGORIN KOOP. ELK. TXIKIA
Errekalde hiribidea, 59. Aguila eraikina, 1. solairua.
20018 DONOSTIA GIPUZKOA.
Tel: 943 37 14 08 ; www.hikhasi.eus;
Posta Elektronikoa: hikhasi@hikhasi.eus
Lege Gordailua: SS-1001/95. ISSN: 1135-4690.

Erredakzioa: Ainhoa Azpiroz, Ainara Gorostizu,
Olatz Lasagabaster.

Erredakzio batzordea: Mikel Agirrezabala, Izarne Gar-
mendia, Aritz Larreta, Josi Oiarbide, Eider Palmou, Leire
Saez, Xabier Sarasua, Josu Txapartegi, Alazne Ugarte-
txea eta Arantxa Urbe.

Aholkulariak: Ane Ablanado, Nerea Agirre, Nerea
Alzola, Nere Amenabar, Esti Amenabar, Amaia Antero,
Abel Ariznabarreta, Alex Barandiaran, Alvaro Beñaran,
Begoña Bilbao, Mariam Bilbatua, Aines Dufau, Lore
Erriondo, Gurutze Ezkurdia, Idoia Fernandez, Joxe Gar-
mendia, Elena Herran, Alfredo Hoyuelos, Xabier Isasi,
Olaia Jimenez, Juanjo Kintela, Irene Lopez-Goñi, Nerea
Mendizabal, Naiara Ozamiz, Karmele Perez Lizarralde,
Karmele Perez Urraza, Iratxe Redondo, Matilde Sainz,
Nora Salbotx eta Xabier Tapia.

Komunikazioa: Paula Estevez.

Administrazioa: Uxue Ugartemendia.

Azaleko argazkia: Hik Hasi.

Diseinua: Sorland.

Maketazioa: Hik Hasi.

Inprimategia: ANTZA S.A.L.

Hezkuntza Sailak onetsia (2023-12-21).

Kopurua: 3.400 ale.

Hik Hasiko edukiak baliatu eta zabaldu ditzakezu,
gure egiletza aitortu eta soilik baldintza beretan eginez
gero. Hik Hasik ez ditu bere gain hartzen bertan plaza-
ratutako iritziak ezta bat etorri ere derrigorri haiekin.

Aurkibidea

“

Joxe Azurmendi

6 EDITORIALA

Onartu dute

8 IRITZIA

10 HILEKO IRUDIA

Beskoitzeko ikastola

12 **GAI NAGUSIA**
Burua alxatzen



22 ELKARRIZKETA

Miren Ros eta Telmo Lazkano



34 **ESPERIENTZIA**

Bizipoza eskola: ikasle guztiei erantzuten dien eskola

38 EKARPENA

'Sofiaren oparia'

dokumentala landuz




46 AHALDUNTZE ESKOLA

50 PROPOSAMENA



54 **ATZEKO ATETIK**
Isaak Aranberri Agirre eta
Edurne Aizpurua Mendizabal





Argazkia: Endika Portillo · Foku

EAEko Hezkuntza Legeak markoa jarriko du, aukerekin eta mugekin, eta garapena ere garrantzitsua izango da, gainean egotea eskatuko du. Halere, oinarriak eta garapena bezain garrantzitsuak izango dira adostasunak.

A benduaren 21ean onartu zuten EAEko Hezkuntza Legea Eusko Legebiltzarreko osoko bilkuran, EAJren eta PSE-EEren aldeko botoekin. Gainerako alderdiek, EH Bilduk, Elkarrekin Podemos-IUK, PPK, Ciudadanosek eta Voxek aurka bozkatu zuten. 2022ko apirilaren 7an Legebiltzarraren gehiengoak onartu zuen Hezkuntza Akordioa; orain, Hezkuntza Legea ez.

Nolakoa da 1993ko Euskal Eskola Publikoaren Legea ordezkatuko duen EAEko Hezkuntza Legea? Oinarri onak al ditu? Prozesuan egindako bidea baliagarria izan al da? Alderdi politiko bakoitzak bere betaurrekoetatik egin du irakurketa, hezkuntza eragileek egin duten moduan. Batzuentzat legea “txarra”, “negatiboa”, “kutsatua”, “zilegitasunik gabea”, “gutxieneoak bermatzen ez dituen”, “aukera galdua”, “porrota” izan den bitartean, beste batzuentzat “pozgarria”, “historikoa”, “aurrerapausoa” eta “sendoa” izan da. Batzuek botila erdi hutsa ikusten dute, beste batzuek erdi betea, eta badira hautsita ikusten dutenak ere.

Legeak markoa jarriko du, aukerekin eta mugekin, eta garapena ere garrantzitsua izango da, gainean egotea eskatuko du. Halere, oinarriak eta garapena bezain garrantzitsuak izango dira adostasunak. **Hik Hasiren** aldarrikapen esanguratsuenetako bat izan da beti, 2021eko otsailean aurkeztu zuen *Hezkuntza Adierazpenean* azpimarratu bezala. Tokian tokiko lankideak egituratzen hasi behar da, lubakietan egoteari utziz eta arazoei elkarrekin aurre eginez.

Ez da erraza, oraingo prozesuan ere ikusi dugu. Baina gero eta sarriago entzuten ari gara herri honetako erabaki garrantzitsuetan adostasunak bilatzea eta herri itunak egitea inportantea dela, politikoak zein sozialak. Ezin uka herri-tarengan poza sortzen dutela, badagoela elkar-hartzeak ikusteko nahia eta ilusioa. Edo are gehiago, ilusionagarria baino, behar-beharrezkoa da.

Onartu dute

Editoriala



Imanol Alvarez Varela

Irakaslea eta *hik/hasitarra*

Pentsatzeko txokora

U rtero lez, garrantzitsuak izango diren abileziak lantzen hasi genuen kurtsoa. Galdera filosofikoak, argudiatzea edo hausnartzea zer diren galdetu ohi diet aurrena, eta aurren, arreta deitu didan erantzun bat nabarmendu da ikasleen artean: hausnartzea, zerbait txarto egin duzunean, egindakoari buruz pentsatzea da. Hari horretatik tiraka, guri ere horretan jartzea komeni zaigula uste dut.

Nola, noiz eta non hausnartzen dugu? Atzetik aurrera hasiko naiz, egunkariekin bezala. *Vox populi* da haurren hausnarketa ahalbidetzen dutela gure etxeetako eta geletako izkina magikoek, beti elkarrizketarako prest dauden jakinduriaren ipotxek habitatzen dituztenak. Pentsatzeko txokora gu joan beharko gara, Hezkuntza Sailak irakaslearen hausnarketarako eta akordioetara heltzeko gaitasunarekin egin duena ikasleekin egiteagatik... Metodori gabe miraririk ez. Hausnartzeko momentuei dagokienez ordea, bistan da ikasleek jaso dutena. Zaila da hausnartzen gozatzea hori erriarekin soilik lotzen badute, ezinezkoa euren kabuz pentsatzen ikastea, hausnartzea guk buruan dugun horretara heltzeari deitzen baldin badiogu.

Nola lagundu diezaiekegu ikasleei pentsa-

mentu kritikoa eta autonomia garatzen orduan? Erantzun zuzenik edo bakarrik gabeko galdera da, noski. Baina Haur Filosofiaren mundutik nator ni, horretan ari gara Jakinmin elkartean, eta proposamenari buruz iker-tzea gomendatzen diot interesa duen orori. *Elkarrizketa argudiatu kooperatiboa* deitu izan dugu Filosofiako curriculum lantaldean, jatorrizko izenak sortu ditzakeen gaizki ulertuak saihesteko eta metodologiaren funtsa sintetizatzeke asmoz. Haur Hezkuntzatik hasi eta adin mugarik ez duen proposamena da, puzzleen antzera, eta filosofia ikasi ordez, filosofatzea planteatzen duena, hemendik bere jatorrizko izena. Argudioek ehuntzen duten elkarrizketa lagun egiten dugu bidea, magiatik urrun, armiarma sarea kooperatiboa eta filosofikoa izatea irakaslearen ardura delarik. Filosofikoa, galderak planteatzea eta argudioen bidez erantzutea baita filosofatzea funtsean. Kooperatiboa, hausnarketa komunitateak sustraitzen duelako, elkarbizitza elkar bizitzen landuz eta gure ideiak eta besteak *win-win* hartu-emanen jartzen ditugularik aldi berean.

Beldurrik ez hausnarketari beraz, aurrera! Baina eman mapa eta ipar-orratza ikasleei, markatu norabidea. Eta batez ere, ibili aldamenen.



Arantxa Urbe Irazusta

Irakaslea eta *hik/hasitarra*

Orain izan etorkizunean izateko

K ontatu nahi nizuen haurrak, nerabeak eta gazteak ez direla soilik etorkizuna, oraina ere badiela. Hor-taz, hezitzaileon betebeharrak behinena da –eta jendartearena, oro har–, ahalik eta baldintza onenak eskaintzea garapen eta ongizate egokiena izan dezaten. Etorkizunean pertsona oso, eta zoriontsuak, zergatik ez, izan daitezen.

Esan nahi nizuen lehen esaten bagenuen etorkizuna direla, gaur oraina direla. Izan ere, gertatutako guztiak eta sor daitekeenak ere izugarri eragiten die. Beraz, eskubidea izan behar dute gaur pentsatzen dutena guri kontatu ahal izateko. Oraina direlako, haien kezak, iritziak, ametsak, nahiak eta irrikak ezagutu behar ditugu, eta, beraz, haien beharretatik at dagoen mundua diseinatzeko hastea saihestu behar dugu. Mundu hori, haien beharretatik urrun eta irakaspenetatik at bailegoke. Ez dira etorkizuna, oraingo herritarrik baizik; orain kezak, eskubideak eta nahiak dituztenak. Horregatik dira interesgarriak, orain direlako haur eta gazte. Helduok ikasi behar dugu haiengandik ikasten.

Halako pentsamenduak jiraka darabilzkidala, begira ari zaizkidan eta heldu gisa, hezitzaile gisa, interpelatzeko nauten haur, nerabe eta gazte begiak sentitu ditut niri so. **Hik Hasi** Palestinara joan zenean Euskal Herritik antolatutako BILA HADI brigada kulturalen, Zisjordanian, Ramalan, Hebronan, Belenen, Jerusalemen eta Israelen okupatutako Palestinako lurretan ikusi eta interpelatu ninduten eskola ume begi berak, hain zuzen.

Dagoeneko, Israelen Gazan soilik 7.700 haur baino gehiago erail ditu. Badakite haurtzarorik gabe ez dagoela etorkizunik. Haurtzaroaren, nerabezaroaren eta gaztaroaren zaintza ez da, noski, hezkuntza komunitatearen ardura soilik, jendarte osoarena baizik. Haurrak, nerabeak eta gazteak jendartearen, herrien eta norberen etorkizuna direlako, baina baita oraina ere.

Kontatu nahiko nizuke Palestinako haurrek, nerabeek eta gazteek badutela etorkizuna. Guk denok oraina zor diegu, euskal haurrei eta gazteei bezala, hemen eta orain direlako, han ere.



Hileko irudia

Beskoitzeko ikastola arriskuan

Arazoari konponbiderik eman ezean, ekainetik aurrera 50 ume baino gehiago, haien familiak eta irakasleak ikastolarik gabe geratu litezke Beskoitzen. Herriko Etxeak ikastolak erabiltzen duen lur sailari dagokion alokairu kontratua etetea erabaki du eta hitzarmena bertan behera utzita, ateak ixteko arriskuan da ikastola. Hamalau hautetsik bozkatu dute Fabienne Ayensa auzapezak proposatutako deliberaren alde, eta beste lauk, kontra. Abenduaren 18ko bozketa unekoa da argazkia.

Kexu dira gurasoak eta haserre Seaskako kideak. Arazoari irtenbidea emateko lanean hasiak dira eta heldu den ikasturtean Beskoitzen ikastola izango dela adierazi du Peio Jorajuria Seaskako lehendakariak.

Gai nagusia

Burua altxatzen

Tolosa burua altxatzen ari da. Pixkanaka, baina atsedetik gabe. Herri osoak egin du bat *Altxa burua!* izeneko ekimenarekin: herritarrek, merkatariek, udalak, gurasoek eta ikastetxeek baietz esan diote sakelako telefonoaren erabilera ahalik eta gehien atzeratzeari.



» Tolosako *Altxa Burua!* taldeko gurasoak. Goitik behera eta ezkerretik hasita: Eli Trojaola, Orkatz Goenaga, Ixiar Arana, Lierni Armendariz, Patrizia Urretabizkaia, Lurdes Oiartzabal eta Olatz Amonarriz.

Gutxitan gertatzen da herri oso ba Gutxitan gertatzen da herri oso bat ekimen beraren inguruan biltzea, denak batera, denak ados eta helburu berarekin. Ez dugu halako argazkirik askotan ikusten, baina Tolosan lortu dute. Gero eta kezka handiagoa sortzen duen gaiak eman du horretarako aukera: haurren eta gazteen sakelako telefonoaren erabilerak. Gurasoen kezkatik abiatuta, udalak, ikastetxeek eta merkatariek ekimenarekin bat egin dute, guztiak burua altxatzearen alde agertu dira, eta lanean hasi dira. Lierni Armendarizek, Ixiar Aranak, Lurdes Oiartzabalek eta Olatz Amonarrizek azaldu

dizkigute Altxa burua! egitasmoaren nondik norakoak. Ikastolako guraso dira Armendariz eta Arana, eta Herrikide ikastetxeko guraso, berriz, Oiartzabal eta Amonarriz.

Herriko hiru ikastetxeetako gurasoak batu ziren kezka bertsuak elkartuta, eta hori izan zen Altxa burua! ekimenaren hasia. Laskorain ikastolako, Orixe-Samaniegoko (Samaniego herri ikastetxeak eta Orixe BHIk osatua) eta Herrikide ikastetxeko gurasoak 2021. urtean elkartu ziren, eta hirugarren ikasturtea dute honakoa.

Laskorainen eta Herrikiden, Miren Rosekin

abiatu zuten prozesua; Samaniego-Orixen, berriz, Telmo Lazkanorekin. Bakoitza bere aldetik ari zen, baina une batean horretaz jabetu, eta elkarlanean hastea erabaki zuten. Samaniego-Orixen, No phone challenge ekimena ere martxan jarri zuten, Telmo Lazkanoren laguntzarekin.

Oiartzabalek azaldu du nola hasi zen guztia: “Herrikiden, DBHko ikasleak beste eraikin batera joaten dira, eta bazirudien, aldaketa horrekin batera, seme-alabei sakelakoa ematea arau bihurtuta zegoela. Gurasook kezka genuen, eta nahiago genuen adina atzeratzea. Miren Rosek Zarautzen izan zuten esperientziaren berri (Gure aukera, guk 16) eman zigun guraso eskolan; gustatu zitzaigun, eta kezka bera genuen gurasoak mugitzen hasi ginen. Gero jakin genuen ikastolako guraso talde batek ere kezka bera zuela”.

“Gure seme-alabak, ikastetxe berera joan ez arren, eskolaz kanpoko jardueretan edo kalean elkartzen dira, eta pentsatu genuen zentzu handiagoa zuela, ikastetxe bakoitza bere kontura aritu beharrean, ekimena herri mailakoa izateak. Ikastolan eta Samaniegon horretan ari zirela jakinda, poz handia sentitu genuen, denok elkarrekin urrunago iritsiko ginela pentsatuta”, aipatu du Amonarrizek. Elkartu egin ziren, beraz, eta, modu horretan, indarrak bildu zituzten. Topic-en, Tolosako Nazioarteko Txotxongilo Zentroan, egindako bilera izan zen horren guztiaren abiapuntua. Amonarrizek azaldu du nolakoa izan zen bilera hura: “Miren Rosekin, Telmo Lazkanorekin eta Jon Bustillorekin egin genuen bilera, eta

udalari ekimena kudeatzeko eskatu genion. Udaleko eta ikastetxeetako ordezkariak bileran izan ziren, eta hasieratik izan genuen haien babes”.

Ikastetxeen babes

Gurasoak hasi ziren gaia astintzen, baina herriko hiru ikastetxeek berehala agertu zuten gaia lantzeko prestutasuna. Gurasoek ikastetxeei konpromisoa sinatu zezaten eskatu zieten, eta hala egin zuten ikastetxeek. Armendarizek zehaztu du zein den ikaste-

txeetan egiten ari diren lana: “Seme-alabei sakelako telefonoa ez emateko konpromisoa hartzen dugu, eta eskolak ezarritako epe horrekin bat egin dezagun laguntzen digu, guraso guztiei mezua helaraziz: ikasturte hasieran, Gabonak arteko konpromisoa hartzen dugu, Gabonen ondoren, Aste Santura

artekoa... Bestela, guretzat oso zaila da guraso guztiengana iristea”. Ikastetxeek gurasoei laguntzen diete, beraz, baina ez dute prozesuaren gidaritzarik hartu. Hori bai, haien azpiegitura eta baliabideak uzten dizkiete gurasoei, esate baterako, bilerak egiteko edota hitzaldiak antolatzeko. Bestelako neurriak ere hartu dituzte ikastetxeetan: sakelakoa jolastokian erabiltzearen gaiari heldu diote, eta, hainbat kasutan, adin jakin batera arte jolastokian sakelakoa erabiltzerik ez dagoela adostu dute. Amonarrizek zehaztu du erabakia: “Eskola eremuetan eta eskola ordutegian ezin da sakelako telefonorik erabili, hori arautua



Pentsatu genuen zentzu handiagoa zuela, ikastetxe bakoitza bere kontura aritu beharrean, ekimena herri mailakoa izateak

Olatz Amonarriz, Altxa burua!



» Tolosako *Altxa Burua!* ekimenak antolatuta Euskal Herriko hainbat herritako gurasoak elkartu ziren azaroan elkarrekin aurrera

egiteko helburuz. Ekainean egingo dute hurrengo bilera.

dago, eta guk ulertzen dugu jolastokiak, eskolako eremua izanik, arau berdinen mende egon behar duela”.

Ikastetxeetara soilik ez, ekimena kalera ere iritsi da, eta Tolosako merkataria burua altxatzen laguntzeko prest dira: 100 dendatik gora batu zaizkio jada Altxa burua! ekimenari, eta atean edota erakusleihoan “Gurea erabil dezakezu” mezua duen eranskailua jarri dute. Umeren edo gaztetxoren batek etxera deitzeko beharra

baldin badu, eranskailu gorria duen saltokiren batera sartzeko eta handik telefonoz deitzeko aukera du. Amonarrizek azaldu du nola bururatu zitzaizen eranskailuaren ideia: “Guraso batzuek esaten zuten beldurra zutela, euren seme-alabek autobusa galduz gero, adibidez, nola jarriko ote ziren haiekin harremanetan. Eta pentsatu genuen, garai batean bezala, umeak nonbaiten sartu eta handik deitzeko eska zezaketela. Haurrek eta gazteek leku horiek identifikatzeko, eranskailuak jartzea bururatu zitzaigun.



Seme-alabei sakelako telefonoa ez emateko konpromisoa hartzen dugu, eta eskolak epe horrekin bat egin dezagun laguntzen digu

Lierni Armendariz, *Altxa burua!*

Tolosa&Co merkatarien elkartearekin harremanetan jarri ginen, eta oso harrera ona izan zuen ideiak. Udalak eranskailuak egin zituen, eta gero eta denda gehiago ari dira ekimenera batzen”.

Helburuak lortuz

Hirugarren ikasturtea dute hau, eta balorazio ona egiten dute denek ere. Hala dio Amonarrizek: “Neurketa egiteko eskatu genion Herrikideri. Bagenekien DBHko 1. mailara ikasle asko sakelako telefonoarekin iristen zirela, eta hurrengo urtean, laurdenak egin zuen DBHko 1. maila, sakelako telefonorik izan gabe. DBHko 2. mailan ere bada halako gailurik ez duen taldetxo bat, eta, orain, beste neurketa bat egin dezan eskatu diogu ikastetxeari. Adina pixkanaka atzeratzen ari dela ikusten dugu, eta poza ematen digu horrek”.

Sakelako telefonoa izateko adina 16 urtera arte atzeratzea da helburua, baina garbi

» Pantailak ikasgela?

Sakelako telefonoa edukitzeko adina atzeratzeari buruz ari gara, ikastetxeetan erabilera gero eta gehiago arautzen da, baina pantailek leku handia hartzen dute, bai ikasgela, bai etxean ere. Armendarizek kezka jarri du mahai gainean: "Pantailen erabileraren arriskuei buruz eta sakelako telefonoa izateko adina atzeratzeaz ari gara, baina DBHko 1. mailara iristen dira, eta ikastetxe askotan *chromebooka* ematen diete. Kontraesan handia da".

"Zalantzarik ez da: alderdi digitala landu behar dute eskolan, mundu digitalean bizi gara, eta gure seme-alabek inguru horretan moldatzen ikasi behar dute, baina pentsatu beharko litzateke zer neurritan eta zenbat ikasgaitan erabili behar diren pantailak eskolan, eta beharrezkoa ote den etxera egunero ekartzea", dio Amonarriek.

Izan ere, ikasgela ez ezik, etxean ere erabiltzen dituzte halako gailuak ikasleek, eta horren aurrean kezka azaldu du Aranak: "Etxe bakoitzak bere errealitatea du, baina ordura arte etxean pantaila lan zehatz baterako erabiltzen baldin bada edo pantailen erabilera oso araututa baldin badago, *chromebooka* kolpetik iristen da, eta dena berrantolatu beharra eta mugak jarri beharra dakar. Paperean egin dezaketenen gauza bera pantailan egiteko, paperean egin dezatela".

Badira berriro paperera pasatzen ari direnak ere. Herrikide ikastetxean, adibidez, horixe egin dute ikasgai batean, Oizartabalek esan duenez: "Semearen tutoreak aipatu zidan mintegian gaia lantzen ari direla, eta Gaztelania ikasgaiaren testuliburura pasatu dira berriz. Pixkanaka ari dira".

dute helburu hori lortzea ez dela batere erraza. Sakelakoen eta gailu digitalen erabilera murriztu nahi dute, erabilera egokia bultzatu, baina inori ezer inposatu gabe, Amonarriek azpimarratu duenez: "Guk pentsatzen duguna esaten dugu, baina gero bakoitzak erabaki behar du zein den bere bidea, familia bakoitzak bere beharrak baititu".



Adina pixkanaka atzeratzen
ari dela ikusten dugu, eta
poza ematen digu horrek

Olatz Amonarriz, *Altxa burua!*

Eskolan ere buruak gora

Gurasoak martxan jarri ondoren, lankidetzarako deia egin zieten Tolosako hiru ikastetxeei eta guztiek egin zuten bat ekimenarekin. Ahal duten guztian laguntzeko prestutasuna izan dute hasieratik eta denak eskutik helduta doaz elkarrekin bidean.



» Jone Iriarte, Joseba Antxustegietxarte eta Julen Ezkiaga.

Ez da askotan gertatzen herri bateko ikastetxe guztiek proiektu baten inguruan bat eginda jardutea. Baina Tolosan lortu dute. Lehendik ere harremanetan zeuden ikastetxeak herrian Hezkuntzaren Mahaia osatua dutelako eta bertan elkartzen direlako, eta orain gai zehatz bati helduta batu dira. Julen Ezkiaga, Laskorain ikastolako Lehen Hezkuntzako zuzendariak, Samaniego-Orixe ikastetxeko Jone Iriarte irakasleak eta Herrikide ikastetxeko 0-12ko zuzendari Joseba Antxustegietxartek Altxa burua! ekimenaren garrantzia azpimarratu dute.

Miren Rosekin elkarlanean aritzen dira Laskorain ikastolan eta Herrikiden, eta Telmo Lazkanorekin, berriz, Orixe-Samaniegoren. Gurasoek abian jarritako ekimenaren berri izan zutenerako gaiari buruzko lanketa egiten ari ziren ikastetxeetan, baina oso garrantzitsua izan da denek bat egitea eta norabide berean jartzea. Gurasoek akuilu lana egin zutela azpimarratu du Ezkiagak: “Domina gurasoei jarri behar zaie. Guk bitartekari lana egin dugu, ahal izan dugun neurrian erraztasunak eman dizkiegu, baliabideak eskura jarri dizkiegu eta gure sareak baliatzeko aukera eman diegu proiektuari ahalik eta oihartzun handiena emateko”.

“Ikastetxe bakoitzak beretik jarri du indarra, baina herria osotasunean hartuta landuz gero, egitasmoak herri hezitzaile gisa askoz ere indar handiagoa izango zuela ikusi

genuen, eta helburua sakelako propioa izatea 16 urtera arte luzatzea izanik, zentzu handiagoa duela denek batera jotzea”, esan du Iriartek. “Kalean umeez eta gurasoek zirkulu nahasiak dituzte eskolaz kanpoko jardueretan, parkean... eta familiek oso garbi ikusi zuten herrian lantzearen eta sarea sortzearen beharra”, gaineratu du Antxustegietxartek.

Seme-alabei sakelakoa edo smartwatch-a ematea gurasoen erabakia da eta zentzu horretan, eskolak lagundu dezakeela, baina lana etxetik hasten dela uste dute denek. Hala dio Ezkiagak: “Etxean ematen zaien tresna da eta bertatik eragin behar da. Ikastetxeetatik lagundu dezakegu, adibidez, formazioak edota hitzaldiak antolatuz, baina sakelakoa ematea edo ez, gurasoek erabakitzen dute. Bakoitzak beretik, baina denek norabide berean tira behar dugu”.

Zer egin daiteke eskolan?

Irakasleek eskolan pantaila zenbat eta nola erabiltzen den arautu eta kontrolatu dezakete eta ikasleek ikasgelan pantaila gehiegi erabiltzen ote duten edo ez, eztabaida ere zabalik dago. “DBHko 1. mailan chromebook-a ematen diegunean zalaparta sortzen da batzuetan eta gero ikusten dugu 2. mailara ikasleen % 60 sakelakorekin iristen dela. Ikasleak pantailen erabileran hezi behar ditugu eta irakasleok ardura horretatik jokatzeko dugula iruditzen zait, kontrolatutako eremuetan eta zeregin konkretuei erantzuteko erabiliz”, adierazi du Ezkiagak.

“Mugak jarri behar ditugu, erabilera arautu behar dugu eta ondoren guk, horrekin koherenteak izan behar dugu”, gaineratu du Antxustegietxartek. Baina mugak jartzea ez da soilik ikastetxearen egitekoa; etxetik hasi behar da. Zentzu horretan mintzatu da Iriarte ere: “Gurasoek kontzientzia hartu

beharko lukete eta irakasleekin enpatia izan, zeren sakelakoa ez da objektu pasibo bat eta kontrolatzen zaila da. Ikasle batzuei arretari eusteko gaitasun eskasa dutela nabaritzen zaie. Ondorioak nabarmenak dira: gelan aspertzen dira, jarduera arinak egin behar dira... Beharrezkoa da marra gorri batzuk jartzea”.

Halako gailuek dituzten ondorioei erreparatu diete: “Sega pasatzen ari gara. Haurrei eta gazteei pertsona gisa garatzeko oztopoak jartzen dizkiegu eta ez gara jabetzen. Albo-kalteak handiak dira eta horretan ere pentsatu behar dugu”, adierazi du Antxustegietxartek. “Estrategien garapenerako gaitasuna oztopatzen diegu. Gizarte indibidualistagoa sortzen ari gara eta buru osasunarekin lotutako arazoak ere gorantz doaz. Ez da gehiegi hausnartzen tresna horien erabilera goiztiarrari buruz, baina beharrezkoa da berandu baino lehen gaiari heltzea” nabarmendu du Ezkiagak.



Etxean ematen zaien tresna da eta bertatik eragin behar da. Ikastetxeek lagundu dezakegu, adibidez, formazioak edota hitzaldiak antolatuz, baina sakelakoa ematea edo ez, gurasoek erabakitzen dute

Julen Ezkiaga, Laskorain ikastola

Aldaketa txikiak eginez, ohiturak aldatu egiten dira eta Iriartek azaldu duenez, jolastokiaren antolaketa egokiak pantailak alboratzen lagundu dezake: “Orixen hainbat jarduera antolatzen ditugu, jolasteko materiala eskura uzten diegu eta horrek jolasgaraian sakelakoren erabilera murriztu egin du”.

Alderdi positiboari begiratzearen eta erabilera egokia bultzatzearen alde egin du Ezkiagak: “Nork bere buruaren antolaketan lagundu dezaketen tresna mordoa daude, adibidez. Kontua da zeri begira jartzen ditugun, zeren pantailak abantailak izan ditzakete, baina ez daude prest hori guztia euren kasa kudeatzeko. Kritiko izateko eta informazio fidagarria identifikatzeko entrenatu behar ditugu eta nik uste dut ikastetxeek horretan ardura handia dugula”. Antxustegietxartek, berriz, pantailen erabilera deabrutu gabe, inposizioz gabeko hausnarketarako guneak zabaltzeak duen garrantzia azpimarratu du eta hau guztia modaz harago doala adierazi du: “Ikerketa, diagnosi, hausnarketa eta erreflexio gunea ere bagara”.

Natibo digitalaren kontzeptuarekin kritiko agertu dira, bestalde, gaur egun jaiotzeak ez duelako esan nahi haurrek eta gaztetxoek teknologia erabiltzen dakitenik: “Kalean kotxeak daude, baina denok ez dakigu kotxea gidatzen. Eta kotxea gidatzeko azterketa teorikoa eta azterketa praktikoa egin behar dira”, jarri du adibide gisa Antxustegietxartek.

Pantailen erabilera egokia egiteko informazioa, formazioa eta baliabideak behar dituzte haurrek eta gazteek. Tolosan, bide horretan aurrerapausoak ematen ari dira, orain arte egindako ibilbidearen emaitzak ikusten hasiak dira eta ilusioz eta burua altxatuz begiratzen diote etorkizunari.

hik hasi

Hezkuntza eraldatzeko



Guraso moduan gerturatu zen sakelakoaren auzira Miren Ros, Zarautzen Gure aukera, guk 16 mugimendua abiatuz. Ordutik formatu eta hamaika ikastetxe eta guraso talderen bidelagun bihurtu da www.bidelagun.eus webgunetik. Telmo Lazkano irakasle moduan gerturatu zen gaira. Hezitzaileentzako Psikologian formatua dago eta berriki *Nerabeen garrasia* liburua argitaratu du Maitane Ormazabalekin batera. Emaila ere ireki dute ikastetxeak eurekin harremanetan jartzeko: mugikorrarenauzia@gmail.com.

Miren Ros

Telmo Lazkano

SAKELAKOAREN ERABILERAN ADITUAK

“ 16 urtetik aurrera sakelakoaren erabilera egokiagoa egiteko prest egon litezke nerabeak



24

Urteak daramatzagu sakelakoarekin elkarbizitzen. Joera da haurrei lehendabiziko sakelakoa gero eta gazteago ematea, baina garbi ikusi dugu mendekotasuna eragiten duela. Zer ondorio izaten ari da haurretan, nerabeetan eta gazteetan sakelakoaren erabilera?

Telmo Lazkano: Ondorioak asko eta anitzak ari dira izaten. Hasieran, lehen begi kolpean ikusten genuen [sakelakoa erabiltzea] denbora galtzea zela, baina harago doa. Gaur egun ikusten dugu nola eragiten duen maila emozionalean, pentsaeretan, ekintzetan eta, batez ere, harremanetan. Ikuspegi holistiko batetik ikusi behar ditugu ondorioak eta ez soilik mugikorretik jasotako *input* horiek guztiek nola

eragiten duten. Kontuan izan behar dugu egunero bost-sei ordu hor pasatzen ditugunean zeri ez diogun denbora eskaintzen, hain zuzen ere, jarduera oso osasuntsuei, gure buru-osasunean eta nortasunean on egingo diguten jardueri denbora kentzen diegu, izan kirola egiteari, edo naturarekin kontaktua izateari edo sormena lantzeari, eta, batez ere, gure harremanei. Deigarria da inoiz baino konektuago gauden momentu hauetan inoiz baino bakartiago sentitzea, eta, batez ere, sentimendu hori nerabeen artean zabaldua egotea.

Miren Ros: Unicefen arabera, gazteen % 60 sare sozialetara konektatzen da bakarrik ez sentitzeko. Pantailak XXI. mendeko txupete



Pantailak XXI. mendeko txupete digitalak dira: haserre, triste edo urduri nagoenean zer egiten dut? Pantaila bat jartzen dut; orduan, ez dut denborarik ez aspertzeko, ezta tristura hori kudeatzeko ere

Miren Ros

25

digitalak dira: haserre, triste edo urduri nagoenean zer egiten dut? Pantaila bat jartzen dut; orduan, ez dut denborarik izaten ez aspertzeko, ezta triste nagoenean nire buruarekin tristura hori sakontzeko edo kudeatzeko ere, eta hori oso arriskutsua da. Eta hori ikusten ari gara: gazteak, adibidez, azterketa baten aurrean blokeatu egiten dira, antsietate krisi bat izaten dute eta larrialdietara joan behar dute. Ez da urduritasun normal bat eta horri buelta emateko daukaten gaitasun faltak kezkatu egiten nau.

Gero eta kezka handiagoa sumatzen da oro har gizartean, baina bereziki ikastetxeetan eta familietan sakelakoaren erabilera goiztiarra edota erabilera okerraren gainean, eta zuek ere gero eta hitzaldi eta tailer gehiago ari zarete eskaintzen. Zerk eragin du gaia pil-pilean jartzea?

T. L.: Alde batetik, maila kognitiboan eta psikologikoan epealdi bat behar da bilakaera hori ikusteko eta hamarkada baten beharra izan da teknologia digital horrek guztiak maila akademikoan zer eragin izan duen ikusteko, batez ere mugikorraren kasuan. 2010 inguruan zabaldu ziren lehenengo *smartphone*-ak eta nerabe haiek 12 urte zituzten. Orain, 10 urte geroago, helduak dira eta ikusten dugu zer-nolako eraginak egon diren. Lehenago hori ezinezkoa zen. Eta beste alde batetik, datuetan ikusten dira ondorioak: ez da kasualitatea mugikorrarekiko harremana adikzio bihurtu den gizarte batean, buru-osasuneko arazoak adingabeen artean inoiz ez bezala igo izana, eta bilakaera horrek korrelazio oso estua du, ez soilik Euskal Herrian.

Lazkano, adibideak jar zenitzake? Sakelakoa nolako eragina izaten ari da buru-osasunean?

T. L.: Hori laburki azaltzea oso zaila da. Suizidioari lotutako kausa nagusietako bat ziberjazarpena da, eta puntu gorena 14-15 urterekin izaten da. Horrez gain, sare sozialek

badituzte teknika teknologiko eta batez ere psikologiko batzuk zeinak eragin zuzena duten erabiltzailearengan, eta bestetik, sare sozialen nortasuna bera aipatuko nuke adibide batekin: sare sozial horietan komunikatzeko kanal nagusiak argazkiak eta bideoak dira, eta horrek izugarritzko garrantzia ematen dio fisikoari eta horrekin erakusten dugun errealitateari, pertsonok ditugun bestelako nolakotasunen gainetik. Ondorioz, irudi hori ahalik eta onena izan dadin saiatzen gara, onartuak izateko, eta guztiok dakigu nerabezaroan onartua izatea funtsezkoa dela. Beraz, horrek guztiak frustrazio handia sortzen du erabiltzailearengan. Sare sozialetan erakutsi behar dudana ni horren eta nire benetako niaren arteko amildegiak konplexu arazo handiak eta zalantzak sortzen ditu. Sare sozialekin bizitza edo profil perfektua duen itsaso zabal batean sartzen gara, eta hor, pixkanaka, zeharka, subkontzientean oso mezu argia txertatzen joaten da: ea ni ote naizen horrelako bizitza zoriontsu, irribarretsu, ilunabarrez josita eta maitasunez betea —*like*-tan neurtua, noski— ez duen bakarra. Eta kontuz, zeren frustrazioarekiko tolerantzia eza depresiorantz eta antsietaterantz joateko autopista bat da.

Horrez gain, ondorioak ez dira nolanahikoak: [sakelakoaren bidez] 9 urterekin izaten da lehenengo kontaktua pornografiarekin eta ez da bilaketa intentzionatu bat izaten. Industria pornografikoak aurkitzen ditu erabiltzaile horiek, *pop up* eta



Pertsona batengan gaitasunak eratu nahian ari gara zerbait adiktiboarekin harreman osasuntsu bat izan dezan, eta gaitasun horiek ez dituenean, erabiltzailea izan ordez, erabilia izango da. Eta ondorioak pairatuko ditu

Telmo Lazkano

banner bidez, eta pornografiarekin horren kontaktu goiztiarra izateak hazkundean dauden berdinen arteko bortxaketekin, taldean egiten direnekin eta nerabezaroan gertatzen ari diren bortxaketekin lotura dauka; orain arte horiek oso anomaloak ziren. Horrelako edukiek eragin izugarria dute erabiltzailearengan, normalizatu eta hutsaldu egiten dituztelako egoera lazgarriak, izan matxismoa edo biolentzia, eta horiek errepikatze joera handia egoten da. Horrelako edukiak sarean sarituak izaten dira, eta hori bilatzen dugu nerabezaroan, sarituak eta taldean onartuak izatea.

Sakelakoaren erabilera egokia nolako litzateke? Adin txiki horietan posible al da sakelakoaren erabilera ona egitea?

M. R.: Nik uste dut ezinezkoa dela. Argi eta garbi: ez, ez eta ez. Alde batetik, hiru oinarri jartzen ditut erabilera egokia posible izateko, eta erabilera egokia esaten dudanean esan nahi dut nik sakelakoa zerbait egiteko hartzen dudala, hau da, era kontziente batean erabiltzen dudala tresna hori. Telmok oso ondo aipatu ohi duen moduan, kontuan izan behar dugu ez dela tresna neutro bat, mila psikologo, publizista eta marketing-ean adituak diren pertsonak diseinatu duten munstro baten atean gaudela. Horri aurre egiteko, nik hiru zutabe ikusten ditut beharrezko. Bat: heldutasuna; nahitaezkoa da garapen bat egotea, heldutasunetik jotzeko erabilera egoki horretara. Bi: formakuntza; jakin egin behar dugu nola erabili, segurtasun klabeak eta informazio-iturri fidagarriak ezagutu behar ditugu. Eta hirugarrena gakoa da niretzako, kontzientziazioa. Hau da, kontziente izan behar dugu noiz ari garen sakelakoa modu automatikoan erabiltzen. Kontzientzia pizteko zer egin behar da? Erabakiak hartu behar dira: gaur elkarrizketa hau irakurtzen ari direnek haien gau-mahaitxoan mugikorra baldin badaukate, proposamen moduan esango nieke mugikorra gelatik ateratzeko; notifikazioak isiltzeko edo kentzeko eta *detox* asteburuak proposatzen ditut beti:

asteburu bat mugikorrik gabe. Goazen mendekotasun horri modu kontziente batean aurre egitera eta goazen gure gorputzean bizitzera mugikorra ondoan ez edukitzeak zer esan nahi duen, guk hala erabaki dugulako. Ikusiko dugu nola sentitzen garen, nola aldatzen den gure harremana familian, ikaragarri aldatzen baita. Pantaila baten aurrean gaudenean ez gaude beste pertsona batekin kontaktu zuzenean, eta hori tristea eta kezagarria da.

T. L.: Auzia gaizki planteatu izan dugu azken hamarkada honetan, ezezagutzagatik: auzia ez dago [sakelakoa] ondo edo gaizki erabiltzean, horrek aplikazio horien guztien benetako izaera zuritzea dakar eta erabiltzailearen esku jartzen du ardura guztia eta ez da horrela, ez da teknologia neutro bat, ez gara ari bizikleta bat nola erabili irakasten. Pertsona batengan gaitasunak eratu nahian ari gara zerbait adiktiboarekin harreman osasuntsu bat izan dezan, eta gaitasun horiek ez dituenean, erabiltzailea izan ordez, erabilia izango da. Eta ondorioak pairatuko ditu. Guztiak dauka adin bat, eta ez da ausazko kontua. Ume batek ez luke izan beharko harremanik horrelako *smartphone* batekin, baizik eta pertsonekin, naturarekin, artearekin eta benetan on egiten dioten gauzekin eta jarduerekin izan beharko luke harremana.

‘Gure aukera, guk 16’ eta gisako mugimendu gero eta gehiago daude ikastetxeen abaroan sortuak. Zu Ros, hasieratik zabilta familiekin lanean. Zer adin proposatzen duzue? Zergatik? Eta nola eman sakelakoa adin horretan?

M. R.: Nik argi daukat; 16tik aurrera. Garuna ez dago oraindik heldua, 25-30 urte inguru horretan garatzen da guztiz. 16 urtetik aurrera garuna beste puntu batean dago, Gauss-en kanpaiaren jaitsieran daude, emozionalki, hormonalki eta sozialki beste puntu batean daude eta adin horretatik aurrera erabilera egokiagoa egiteko prest egon litezke [nerabeak]. Horrekin



zer esan nahi dut? 16 urte bete arte ez dutela inolako sare sozialik ikusiko beren bizitzan? Ba ez; justu alderantziz: haiekin ibilbide bat egitea garrantzitsua dela uste dut nik. Eta guk geuk, heldu moduan, ardura bat daukagu. Gu zer-nolako erabilera ari gara egiten? Zer-nolako eredu gara gure seme-alabentzako? Baita irakasleak ere. Adina oso inportantea da. Beti adibide bera jartzen dugu: autoa gidatzeko baimena 18 urterekin ateratzeko, eta zerbaitengatik dago 18 urteko adina jarrita. Kotxearekiko legea zorrotza da, azterketa medikoa, praktikoa eta teorikoa egin behar ditugu eta orduan lortzen dugu gida-baimena. *Smartphone*arekin ba al dago interesik gure gazteek 16 urtetik aurrera eskura ditzaten tresna horiek ala interesa dago lehenbailehen TikTok eta Instagramen sar daitezen? Ez dago ondorio legalik haur batek sakelakoa 9 urterekin eskuratzen badu, TikTok sartzen bada, pornografia ikusten badu...

Zuk zer adin proposatuko zenuke, Lazkano?

T. L.: Askotan eztabaida zabala izaten da hori, eta esaten da adin bat, 16 urte, ezartzeagatik ez dela harreman osasuntsu bat gauzatuko. Neurri batean hala da, baina horrek ez du esan nahi horretara bultzatzen gaituzten beste faktore batzuk ez daudenik. Lehen aipatu dut bat: bere buruaz beste egitearekin lotutako kausa nagusietako bat ziberjazarpena eta jazarpena dira, eta horren une gorena 14 eta 15 urterekin gertatzen da. Beraz, inflexio puntu garrantzitsua da adin hori, eta 16 urtetara atzeratuz gero, hori ekiditea askoz ere errazagoa izango litzateke. Zergatik? Alde batetik, horrelako gailu garrantzitsuak 12 edo 13 urte dituen pertsona baten esku uzten baldin baditugu, askoz ere aukera handiagoa izango du erabilera desegokia egiteko, izan ziberjazarpena edo sextortsioa edo bestelakoak, ez baitira gai ez emozionalki baina, batez ere, ez legalki eta ez moralki horrek guztiak dakartzan ondorioak ikusteko. Bestetik, aplikazio horiek erabiltze-



Horrelako gailuak 12 edo 13 urteko pertsona baten esku uzten baldin baditugu, askoz ere aukera handiagoa izango du erabilera desegokia egiteko, izan ziberjazarpena edo sextortsioa, ez baita gai horrek dakartzan ondorioak ikusteko

Telmo Lazkano

rakoan, adibidez Whasappen kasuan, 16 urte behar dira. Haratago joanda, gure garuna, gure aparatu emozionala bereziki, sistema linbikoa, 25 eta 30 urte bitartean garatzen bukatzen dela uste da, baina 16-18 urterekin inflexio puntu garrantzitsu bat gertatzen da sistema linbikoaren garapenean. Garuna atzetik aurrera garatzen da, ordena horretan, eta gure txikiek ez dituzte haien ekintzen epe ertain eta luzeko ondorioak aurreikusiko, sarea arriskuen aurretik jarriko dute eta, batez ere, inpulsiibitateak bideratuko ditu. Gehitu horri sare sozialek hori guztia oso ongi dakitela eta esplotatu egingo dutela. Eta bestetik, gure garuna garatzeko garaian beste garun baten beharra daukagu, gurasoena. Gaztetxoek erreferentzia eta bidelagun hori aurkitzen ez dutenean, hori egiten duen eta, gainera, hortaz aprobetxatzen den pantaila bat aurkitzen dute. Beraz, arazoak areagotu egiten dira. Azkenik, kontuan izan beharko genuke erantzukizun legala, izan ere, 14 urtetik behera ezin dira epaituak izan eta 16 urtetan termino legalak aldatu egiten dira, hau da, tutore legalak dira mugikorraren jabe eta bertatik gertatzen den guztiaren ondorioak pairatuko dituztenak. Ez gara urrutira joan behar: Donostian ziberjazarpen kasu bat gertatu zen, ikasle batek irakasle bati egin ziona, eta eskolak eta tutore legalek 20.000 euroko isuna ordaindu behar izan zioten irakasle horri. Beraz, nik uste dut arrazoi asko daudela 16 urtetara arte itxaroteko.

Eskola eta familia auzi horretan elkarrekin joan daitezen, eta jakinik ere ardura nagusia familiena dela, nola lagundu dezake eskolak?

M. R.: Sakelakoa gurasoen ardura da, ehuneko ehunetan. Baina eskolak asko dauka esateko. Sakelako horrekin egiten diren eta egiten ez diren gauza guztien ondorioak gelan ikusten dira, haien harremanetan eragin zuzena daukalako. Ikastetxe ugaritan ibiltzen naiz, eta ikusten dut haiek ere hausnarketan ari direla, bai digitalizazioaz eta baita mugikorrei

buruz ere. Teknologia oro har —sare sozialen erabilera, bideo-jokoen erabilera...— zeharkako gai jotzen dut nik, emozioen lanketarekin, heriotzarekin eta doluarekin eta sexualitatearekin batera; lau elementu horiek bizitzako gai garrantzitsuak dira eta txikitatik landu behar ditugu. Askotan entzuten ditugu “mugikorra erosi behar diot ezin delako atzean gelditu digitalizazio honetan” eta gisako argumentuak. Steve Jobsek eta aditu horiek nola ikasi zuten teknologia, erabiltzaile izanaz ala pantailen atzean egonaz eta diseinatuz? WhatsAppa eta TikToka erabiltzeagatik ez dira digitalizatuko gure seme-alabak, ezta gutxiago ere.

T. L.: Hezkuntzan esaten zaigu dugun gizartearekiko norbanako konpetenteak sortu behar ditugula, eta gizartea guztiz edo ia erabat digitalizaturik dagoen neurrian, konpetentzia digital hori landu behar dugu. Nire galdera honakoa da: nola utzi ekuazio horretatik kanpo haiengan eragin handiena duen teknologia? Beraz, uste dut irakasgaietan eta programazioetan txertatzeko gai bat dela, zalantzarik gabe. Eta, bestetik, ebidentzia akademiko sendoa daude eskolak telefonorik gabeko arnagune bihurtzeko. Izan ere, Gaztela Mantxan eta Galizian egindako ikerketa bat datorkit burura, baina nazioartean eta, batez ere, AEBetan askotan egin dira horrelakoak, mugikorrak eskolara eramatea debekatu denean, ondorioak oso onuragarriak izan dira: alde batetik, irakaslearen benetako jarduna erraztu du; ziberbullying-a murriztu da; atentzioa hobetu da, maila akademikoan nota hobeagoak eskuratzea eragin du eta haien arteko harremanak sustatu dira.

Ros, zuk haurrekin eta nerabeekin zuzenean egiten dituzu saioak ikastetxeetan. Nola ikusarazten dizkiezu hurrei sakelakoak ekar ditzakeen arriskuak?

M. R.: Beti saiatzen naiz adibide zehatzak ematen, ikusi dezaten eta sentitu dezaten esaten ari naizen horrek atzetik egia duela. Oso

interesgarria iruditzen zait ikasleek esaten didatenean “hori nire amak edo aitak esaten dit”; zeinen ederra, gurasoek eta gelara etorri den pertsona ezezagun batek mezu berdina ematen diegunean, ikasle horiek pila bat indartzen ditugu. Nik galdetzen diedanean ea mugikorrak propioa eduki nahi duten, erantzuna ez da beti baiezkoa, nik uste dut gizartean beste ideia bat txertatzen ari dela, “agian oraindik ez”. Galdetzen diet bazkari familiarretan ea lehengusu edo anai-arreba zaharragoek mugikorra ateratzen duten eta kasu egiten dieten; argi daukate ezetz. Begirada aldatzen hasi da dagoeneko. Ikastetxe batzuetan urteak daramatzat eta ikusten da ikasleengan beste begirada bat ari dela barneratzen eta beste balio bat ematen diotela lagunekin gelditzen direnean jolasteari eta pantaila bati begira ez egoteari.

Lazkano, zuk No Phone Challenge proiektua jarri zenuen martxan Donostiako Peñafiora institutuan. Zer-nolako esperientzia izan zen?

T. L.: Proiektu horrek hiru atal zituen. Lehen-dabizi guztion artean ezagutza bat eraiki genuen, eztabaidaren bitartez. Gero, bigarren atalean, ezagutza hori guztia kritikotasunera pasa genuen, eta galdera desberdinen bitartez eta idazlan baten bitartez, ikusi behar zuten horrek guztiak beren buruarengan eta gizartearengan duen eragina ikusi behar zuten. Eta hirugarren atalean, ikasgelan ikusitako hori guztia bizitzara ekarri genuen, eta erronka bat plazaratu nien: astebetez mugikorra zuzendaritzan giltzapean uztea, eta eguneroko emozional bat idaztea. 23 ikasleek 19k hartu zuten parte, eta nik neuk ere haiekin utzi nuen mugikorra zuzendaritzan. Lehenengo hiru-lau egunetan maila akademikoan ikusten diren ondorioak pairatu zituzten, antsietate atake txikiak, edo lo egiterakoan arazoak izatea, gehiago jaten hastea, pentsamendu intrusiboak zituzten eta desegonkor sentitzen ziren orokorrean. Laugarren egunetik aurrera, askoz



ere askeago sentitzen hasi ziren, kate bat moztu izan balute bezala sentitzen ziren, etxetik ateratzea zerbait berria bezala deskribatzen zuten, askoz ere lasaiago sentitzen ziren, atentzioa hobetu zuten eta ikasgeletan nabarmena zen. Eta noski, nire ikasleek mugikorrarekin batz bestei ordu pasatzen bazituzten, egun horietan beste hainbeste ordu gehiago zituzten beste gauza batzuetarako. Ikasketa galanta eman zidaten.

Pantailak gero eta gehiago erabiltzen dira eskoletan eta aitortu behar da erabilera egokiak abantailak dakartzala. Baina ekar ditzaketen arazoak kontuan izanda, eskolan nola baliatu beharko lirateke pantailak?

T. L.: Nik uste dut badela garaia hezkuntzan digitalizazioaren



Ikastetxe batzuetan ikusten da ikasleengan beste begirada bat barneratzen ari dela eta beste balio bat ematen diotela lagunekin daudenean pantaila bati begira ez egoteari

Miren Ros

inguruan hausnarketa sendoa, doitasunezkoa eta ausarta egitekoa. Hori diot ebidentziak ez duelako bestelako aukerarik uzten. Mendebaldeko herrialdeetan ikusi dugu urtez urte eta informeaz informe, Pisa eta Pirls nazioarteko informeetan, gure txikien eta belaunaldi berrien gainbehera kognitiboa. Azken informean ikusi dugu gainbeherarik handiena. 2015ean Pisa informeak badu grafika oso esanguratsu bat Matematika arloan, non erakusten den digitalizazioan gehien inbertitu duten estatuek emaitza okerrean izan dituztela. Informe horren zuzendaria Schleicher zen, eta aipatu zuen, teknologiaren erabilera zerbait oso aberasgarria izan daitekeela baldin eta oinarritzko gaitasunak baldin baditugu; bestela kalteak eragingo dituela. Teknologiaren erabilera pertsona batek dituen gaitasun ebolutiboei erantzun behar die, eta ez bestelako interesei; eta hezkuntzan berdin gertatzen da: demagun matematikari batek kalkulagailu inteligente bat sortzen duela, bere lana asko erraztuko duena, baina pertsona batek ez baldin badaki batuketak eta kenketak egiten eta arkatza kendu eta kalkulagailu hori eskutan uzten baldion badiogu, ez da soilik Matematikako funtsezko konpetentzia horiek ez garatuko, baizik eta dependentzia handi bat sortuko diola teknologia horrekiko. Teknologia horrek oztopatu egingo du oinarritzko konpetentzia horien eraketa.

Hezkuntzan, digitalizazioari begira, ondorio nabariak ari gara ikusten, atentzio gaitasun gabezia handia, hizkuntzaren anputazioa eta pobretzea, eta baita motibazio edo frustrazio tolerantziarik eza ere. Hiru arlo horiek funtsezkoak dira ikasketetan eta lotura dute pantailen erabilerarekin. Oinarritzko konpetentziak garatuta ez baldin baditugu, teknologiaren erabilera ez da lagungarria izango. Teknologia balio erantsirik ematen ez baldin badu, ez guke erabili beharko; bestela esanda, teknologia da pedagogiara egokitu behar dena eta ez alderantziz.



Teknologiaren
erabilerak pertsona
batek dituen gaitasun
ebolutiboei erantzun
behar die, eta ez
bestelako interesei;
eta hezkuntzan berdin
gertatzen da

Telmo Lazkano



Galdera laburrak

01.

Eskola garaiko oroitzapen on bat?

Telmo Lazkano: Gure ibaiko uraren kalitatearen neurketa lanak egin eta emaitzak ematera udaletxera joan ginenekoa.

Miren Ros: Elurra egiten zuenean denok altxatu eta leihoetara korrika joaten ginen, hura zen poza!

02.

Eskola garaiko oroitzapen txar bat?

T. L.: Irakasleak ikaskide bati jo izanaren testigu izatea.

M. R.: Matematikako irakasleak buruan koskorrekoa ematen zigunean ariketa gaizki eginez gero.

03.

Nolako eskola amesten duzue?

T. L.: Pertsonetikiko begirada holistikoa abiapuntu duena.

M. R.: Pertsona bakoitzari bere izaera paregabe horretan hezten eta garatzen lagunduko dion eskola eta, era berean, enpatizatzen eta ingurukoak errespetatzen erakutsiko diona.

04.

Zuentzat garrantzitsua den balore bat?

T. L.: Maitasuna bere zentzu zabalenean.

M. R.: Enpatia.

05.

Hezkuntzari buruzko film bat edo liburu bat?

T. L.: *Dead Poets Society*, Peter Weirren pelikula.

M. R.: *Educar en el asombro*, Catherine L'Ecuyerren liburua.

Esperientzia

Bizipoza eskola: ikasle guztiei erantzuten dien eskola

Ikastetxeetan dagoen aniztasunari erantzuteko gida pedagogikoak sortu ditu Bizipoza elkarteak, eta Bizipoza eskola webgunean bildu ditu. Gaiak lantzeko eta elkarteak ezagutzeko jarduerak eta baliabideak eskaintzen ditu hezkuntza formalerako, ez-formalerako eta herrigintzarako.



» Bizipoza eskolaren aurkezpena Usurbilen. Irakasleak eta elkarteak batu ziren, besteak beste. ARG: Tapuntu

Zer gertatzen da ikastetxeko haur bati minbizia diagnostikatzen diotenean? Familiaren esku gelditu behar eskola al du gaitzaren gaia lantzeak? Bizipoza elkarteak argi du ezetz, Nerea Godoy elkarteak kideak esandakoaren arabera: "Ikasgelara ekarri behar dugu minbiziaren gaia; hitza esan egin behar da; minbizia entzun egin behar da. Haurrei ere entzun egin behar zaie minbiziari buruz hizketan, eta haurrek gaiarekiko izan ditzaketen beldurrak, espektatibak eta proiektzioak entzun eta landu egin behar dira". Haur baten kasutik harago, ikasgelara eraman zuen begirada Godoyk ondoren: "Zer egin dezakegu ikasgelan daukagun aniztasunarekin? Nola hitz egin dezakegu ikasgelan daukagun kultura aniztasunari buruz? Nola bilakatu dezakegu aniztasuna ikaskuntza, ikasle guztiek euren ere garrantzitsua dela senti dezaten?". Hainbat gai ikasgelan eta ikastetxean lantzeko material pedagogikoa sortu eta bildu du Bizipoza elkarteak, Bizipoza eskola proiektuan: gaixotasunak, generoa, transexualitatea, heriotza edota kultura-aniztasuna.

Bizipozaren 7. jardunaldietan aurkeztu zuten Bizipoza eskola proiektua, Usurbilen, iragan azaroaren 18an. Bizipoza elkarteak lantzen dituen gaiak eta materialak gizarteratzeko webgunea da Bizipoza eskola, eta gida pedagogikoak eskaintzen ditu. Godoyk adierazi zuenez, Bizipoza osatzen duten elkarteak sortu ziren arrazoi berberetatik sortu da orain Bizipoza eskola webgunea: "Badaude bete gabeko eskubide batzuk, eta familiak eta pertsonak batu ziren orduan elkarteak sortzeko; guk gauza bera egin dugu orain: behar bat zegoen hezkuntzan, eta elkartu egin gara gaian adituak eta arituak garen pertsonak, eta gida pedagogikoak sortu ditugu elkarrekin eta elkarrentzat". Hiru norabidetan bideratu dituzte Bizipoza eskola proiektuaren edukiak: alde batetik, hezkuntza formalarik begirako materialak bildu dituzte; bigarrenik, hezkuntza ez-formalarik bideratuak; eta herrigintza izan da jorratu duten hirugarren esparrua.

Bizipoza eskola webgunea abenduan ireki baldin badute ere, aurrez proba pilotuak egin



ARGAZKIA: Tapuntu

dituzte hainbat ikastetxetan, gida pedagogikoak diseinatzeko, sortzeko, eta elkarrekin osatzeko. Gida pedagogikoak egiteko garaian, arituak eta adituak elkarrekin aritu dira lanean. Lehendabizi, jasotze lanak egin ditu Bizipozak. “Bagenekien zer behar genuen, baina ez genekien nola gauzatu behar hori, eta adituekin elkartu ginen horretarako, irakasleekin, zuzendariekin, gida didaktikoak diseinatzeko dituztenekin, eta, haien ekarpenak jaso, eta gidak diseinatu dira”. Ondoren, gidak prestatu direnean, ostera ere, hezkuntza komunitatei helarazi zaizkie berriro, eta horrela sortu dira webgunean dauden gida pedagogikoak: “Gida guztiak irekiak eta malguak dira, bakoitzak bere testuingurura egokitu ditzan, eta eskola txiki batera zein eskola handi batera egokitzen dira, baina baita bestelako errealitateetara ere”. Hernaniko Aratz ikastolan, Amaiurko landa eremuko eskolan, Bilboko Urretxindorra ikastolan eta Uribarri eskolan, eta Donostiako Añorga auzoko Amassorrain eskolan egin dituzte proiektu pilotuak, besteak beste, eta ikastetxe guztietako ordezkariak biziki interesgarritzat jo zituzten webguneak eskaintzen

dituen gida pedagogikoak. Nork bere errealitateara egokitu ditu materialak, eta bakoitzak bere kasa landu ditu jarduerak.

Hezkuntza formalari dagokion atalean, etapaka egokitu dituzte gidak, Haur Hezkuntzara, Lehen Hezkuntzara, Bigarren Hezkuntzara, ikasgela egonkorrera eta Goi Mailako Hezkuntzako ikasgeletara begira. Hezkuntza maila guztietarako gai berak proposatzen ditu Bizipoza eskolak, “baina barruko jarduerak eta planteamenduak adin tarteari egokitzen zaizkio”. Ikastetxeetan dagoen aniztasun guztiari erantzuteko leihoak —jarduerak, materialak, bideoak, kantuak...— eskaintzen ditu webguneak. “Ikastetxe guztietan, ikasgela guztietan, herri txikietan zein handietan aurkituko dugulako aniztasuna, eta aniztasun horri erantzun bat eman behar zaio. Hori ere curriculumaren barnean sartzen da, eta dagokion lekua hartu behar du aniztasunak, ikasle horiek gure ikasleak direlako, eta irakasle, hezitzaile eta hezkuntza sistema moduan erantzun bat eman behar zaie, eta Bizipozak material ugari eskaintzen du, euskaratik eta euskaraz”.

Zortzi gai, gida pedagogiko eta material ugarirekin

Bizipoza eskolaren webgunean zortzi gairi buruzko gida pedagogikoak aurki daitezke, etapari egokituta. Atal guztiek sarreran aurkezpen jarduera izango dute, egingo duten jardueran murgiltzen laguntzeko. Gaiaren helburua eta gaiari loturiko egun garrantzitsuak ere zehazten dira, gaiak hizpidera ekartzeko lagungarriak baitira. Jarduera bakoitzak jorratzen dituen konpetentziak zehazten dira baita esperientzia eremuak eta zehar-gaiak ere.

- **Bizipoza.** Elkarrearen balioak eta izaera azaltzeko baliabideak daude bertan, eta hainbat konpetentzia lantzeko materialak eta jarduerak proposatzen dira.

- **Norbere buruaren ezagutza eta taldekidetasuna.** Norbere burua lantzeko materiala eskaintzen dute gidek: “Gai hauek beti hirugarren pertsonan lantzen ditugu, atzeritik datozenak, gaixoak... baina nor naiz ni? Galdetu behar diogu lehendabizi geure buruari”. Proposatzen diren jardueren helburua “autoestimua lantzea, norbere buruaren ezaugarri fisikoak eta nortasunari dagozkionak ezagutzea” da.

- **Identitatea, genero rolak eta transexualitatea.** Atal horren helburua “emakumeen eta gizonen arteko desberdintasun orokortuak egia ez direla ohartzea” da; “neska eta mutil bakoitzak izaera bat duela eta hori ez doala bat neska edo mutil izatearekin”.

- **Familia aniztasuna. Sexu-orientazioa eta heriotzari keinuka.** “Amak, aitak eta seme-alabek osatutako familiaz gain, familia osatzeko beste modu asko ezagutzea eta onartzea” da atal horren helburua. Gehitu, Agipase, Beroa harrera familien elkartea, Ume Alaia elkartea edo Ilargi elkartea daude bertan.



- **Kulturartekotasuna:** Euskal Herrian bizi diren euskaldunen kultur aniztasunaz ohartzea” da atal horren helburua. Etiopia-Utopia, ndank-ndank edota Kale Dor Kayiko ijitoen elkarrearen lana ezagutzeko materiala dago.

- **Aniztasun funtzionala. Gaitasunak eta gabeziak.** “Denok gaitasunak eta gabeziak ditugula ohartzea eta elkar laguntzearen garrantziaz jabetu eta lantzea” da atal horren xedea. Atal horretan Bizipozako elkarre gehienak lantzen dira, Pausoka, Sanfilippo, Juneren hegoak elkarre, Down Sindromea fundazioa...

- **Gaixotasunak.** Bizipozan gaitz larriak jorratzen dituzten elkarreak daude: Aspanogi, Aspanovas, Izan inurri edota SuperH, minbizia jorratzen duten elkarreak adibidez, edo Bihotzez bihotzeko kardiopatiak dituztenen elkarre, Arnasa Fibrosi kistikoa dutenen elkarre...

- **Boluntarioria eta Bizipoza jaia.** Boluntariorien kontzeptua ulertzea, barneratzen hastea eta Bizipozaren jaia antolatzea da atal horretako proposamenen helburua.

“Sofiaren oparia” dokumentala landuz

Ekarpena

Etorkizuneko irakasleek zailtasunak dituzten hurrekin egingo dute lan, eta, hori dela eta, garrantzitsua da sakon ezagutzea zer arazo izan ditzaketen zenbait zailtasun dituzten hurrek. Downen sindromea lantzeko, *Sofiaren oparia* izeneko dokumentala ikusi dute Bilboko Hezkuntza Fakultateko Haur Hezkuntzako Graduako ikasleek.



Nikole Arrieta, Naiara Ozamiz, Maitane Picaza, Eneritz Jimenez eta Naiara Pikatza

Euskal Herriko Unibertsitateko Bilboko Hezkuntza Fakultateko doktoreak eta irakasleak

Lean honetan, Downen sindromearen definizioa eman dugu, eta familia batera horrelako haurtxo bat iristeak zer esan nahi duen jaso dugu. Ondoren, *Sofiaren oparia – El regalo de Sofía*, jatorrizko bertsioan– dokumentalaz hitz egin dugu, gaia lantzeko oso dokumental egokia delako. dokumentalari buruzko hainbat galderari erantzunez eta eztabaidatuz ikasleek egindako hausnarketa ekarri dugu orriotara.

Downen sindromearen definizioa

Downen sindrome kasuetan, kromosoma estra bat egoten da, eta, horren ondorioz, alterazio genetiko bat gertatzen da. Down-en sindromea gertatzen da zelula-zatiketa anormalaren ondorioz 21. kromosomaren kopia gehigarri osoa edo partziala sortzen denean. Material genetiko horrek aldaketak eragiten ditu pertsonaren garapenean eta Downen sindromearekin lotutako ezaugarri fisikoetan (Mayo Clinic, 2018). Giza alterazio genetiko ohikoena eta adimen desgaitasunaren kausa nagusia da Downen sindromea. Herrialde, etnia eta gizarte klase guztietan gertatzen da.

Amaren adina izaten da arrisku faktorerik handiena (35 urtetik gorako ama). Jaio aurretik, ekografiaren edo amaren odolaren analisiaren

bidez antzeman daiteke Downen sindromea, eta amniozentesiaren laginaren bidez berrets daiteke. Erditzearen ondoren, itxura fisikoagatik sumatzen da umeak Downen sindromea duela, eta susmo hori odol lagin baten analisiaren bidez berresten da, 21. kromosoma gehigarria aurkitzen denean (Powell-Hamilton N. 2019).

Downen sindromea duten pertsonen ezaugarri komunak dituzte, baina pertsona bakoitza bakarra da (Down España, 2019).

Downen sindromea duen haurtxo baten jaiotza

Familiek laguntza behar dute Downen sindromea duen haurtxo baten zain daudela jakiten duten unetik bertatik, eta jasotzen duten laguntza onuragarria izango da gurasoentzat zein jaio behar duen haurrarentzat. Beharrezkoa da gurasoek Downen sindromeari eta jaso dezaketen laguntzari buruzko informazioa izatea, haurraren garapena egokia izan dadin (Down España, 2020). Gainera, hurrek bizitzako lehen hiru urteetan jasotzen dituzten arreta eta zainketak funtsezkoak dira etorkizunean autoestimua izan dezaten eta heziketa egokia izan dadin. Gizabanakoen izateko modua eta pa horretako berezko estimuluek eta ikaskun-

tzek definitzen dute, neurri handi batean (Rodriguez, 2021).

Horrez gain, arreta goiztiarreko programak funtsezkoak dira baita ere haurtxoaren alderdi sentzoriala eta alderdi motorra estimulatzeko laguntzen dutelako. Arreta hori jasoz gero, murriztu egingo dira haurrak bere garapen globalean izan ditzakeen ondorio negatiboak eta, ahal den neurrian, haurraren garapenaren bilakaera optimizatu egingo da. Era berean, familiaren eta haurraren ingurunearen premiei eta eskaerei erantzun zuzena, eta esku-hartzearen subjektu aktibo gisa hartuko da haurra (Sanchez, 2002).

Hori dela eta, eren semea edo alaba Downen sindromearekin jaio dela jakin bezain laster, gurasoak etxetik hurbilen duten Downen sindromearen elkartarekin harremanetan jartzea komeni da, profesionalak lehenbailehen has daitezten umearekin lanean, egoera bera bizi izan duten beste familia batzuekin harremanetan jar daitezten, eta, batez ere, Downen sindromea duen semearen edo alabaren bizitzari buruzko espektatiba errealak eta zentzuzkoak eraiki ditzaten.

Sofiaren oparia dokumentala

Down España Federazioak egindako *Sofiaren oparia* dokumentalak Manuelen eta Martaren kontakizuna jasotzen du, Downen sindromea duen alaba baten ustekabeko etorrerari aurre egin behar izan zion bikotearena.

Gurasoen hasierako shockaren berri emanez hasten da dokumentala, eta euren bizitzako unerik okerrenea bizi izan zutela azaltzen dute. Gerora, familiak albistea onartzen du eta, horretarako, senideen eta lagunaren laguntza funtsezkoa izan dela azaltzen dute. Azkenik, Downen sindromea duen alaba bat eduki izanari buruzko hausnarketa positiboak egiten dira, eta neskatoa zoriontsua dela, bizitzaz gozatzen duela eta inolako mugarik ez duela azpimarratzen dute. Oso dokumental aberasgarria da.

Sofiaren oparia aztergai

Etorkizunean Haur Hezkuntzako irakasleak izango diren Bilboko Hezkuntza Fakultateko Haur Hezkuntzako Graduoko ikasleek *Sofiaren oparia* lana aztertu zuten. Hurrengo lerroetan, dokumentalaren edukiaren berri jaso dugu, ikasleek hainbat galderari emandako erantzunei esker. Downen sindromearen



»» Sofiaren oparia dokumentalaren fotograma bat.



Dokumentalak Manuelen eta Martaren kontakizuna jasotzen du, Downen sindromea duen alaba baten ustekabeko etorrerari aurre egin behar izan zion bikotearena

ezaugarriak hobeto ezagutzeko aztertu zuten ikasleek bideoa; etorkizunean lanean hasten direnean haurrak artatuko baitituzte, eta, horien artean, Downen sindromea duen pertsonak egon baitaitezke.

Dokumentala ikusteari esker eta ondoren egindako eztabaidari esker, ikasleek Downen sindromearen hainbat alderdi ezagutu zituzten. Hasteko, Downen sindromea bera ezagutu dute. Horrez gain, aztertu dute diagnostikoaren berri izateak familiari emozionalki nola eragiten dion, eta umearen garapena nolakoa den ikustean zer erreakzio zituzten; baita familia horiei laguntzen dieten erakundeek alderdi emozionala nola zaindu behar duten ere.

Hona hemen ikasleek dokumentalaren edukia-ri buruz emandako erantzun argigarri batzuk:

· *Zer sindrome du Sofiak, eta noiz diagnostikatu zioten?*

Zesarea egin behar izan zioten amari, eta Sofia jaio zenean jakinarazi zioten familiari jaioberriak Downen sindromea duen pertsona baten ohiko aurpegi ezaugarriak zituela. Haurra jaiotzean diagnostikatu zioten Downen sindromea, horri dagozkion ezaugarriak antzeman zizkiotenean. Haurdunaldian ez zuten horren berririk izan, eta amari ez zioten horrekin lotutako mediku probarik egin.

· *Zein izan zen gurasoen erreakzioa eta asimilazioa?*

Sofiaren gurasoek haren adimen desgaitasuna ezagutu ondoren, hainbat fase igaro dituztela ikus daiteke bideoan. Gurasoek ez zuten oso ongi hartu alabari buruzko albisteak; aitari emaztea etorri zitzaion gogora –une hartan ez baitzeuden elkarrekin–, eta horrelako albiste bati elkarren ondoan aurre egin behar ziotela pentsatu zuten biek ala biek. Alabak Downen sindromea zuela jakiteak aldaketa ekarri zuen familiaren bizitzako plan guztietara, pentsatu baitzuten berriro ere bizitza normala izatearik ez zutela izango. Albisteak jakin eta lehen orduetan, Downen sindromedun alaba izateak ekarriko zizkien mugetan baino ez zuten pentsatu.

Bai ama eta bai aita euren inguru hurbileko pertsonekin harremanetan jarri ziren, eta haiek animatu egin zituzten, erabaki onena alaba jaio zen modukoa onartzea zela esanez. Gerora, ordea, gurasoek emozio handia sentitu zuten alaba ikus- tean, eta, une hartatik aurrera, Sofiarekin biziko zuten egoera onartzen hasi ziren; berehala konturatu ziren onuragarriagoa zela alabak zituen aukeretan eta gaitasunetan jartzea arreta. Bizpahiru hilabeteren ondoren, Sofiaren gurasoek onartu zuten alabaren egoeraren ondorioz familiak beste erritmo batean bizi beharko zuela, eta ez zitzaien kostatu gizartean integratzea.

· *Non aurkitu zuten gurasoek egoerari aurre egiteko laguntza?*

Downen sindromean espezializatutako pediatra batek adoretu zituen Sofiaren gurasoak. Itxaropena eman zien eta, horrez gain, adimen urritasun hori benetan zer zen eta zer suposatzen zuen azaldu zien. Jasotako laguntza horrek ordura arte zuten ikuspegia eta alde zurretik zituzten ideiak aldatu zizkien biei ala biei.

Era berean, Down España elkartearekin ere jarri ziren gurasoak harremanetan.. Downen sindromea duten pertsonen esparru guztietan sartzeko erraztasunak eskaintzen dizkie elkarte horrek, Espainiako estatuan Desgaitasuna duten Pertsonen



Zoriontsua dela diote ingurukoek, ikasteko gogoa duela, eta haren izaera azpimarratzen dute, besteak beste. Horrek guztiak haren garapen integrala egokia izan dadin laguntzen du, gorabeherak izan ditzakeen arren

Eskubideei buruzko Nazioarteko Hitzarmena betetzen dela zaintzeko. Modu horretan, familiei, profesionali eta, oro har, gizarteari laguntza eskaintzen die.

· *Testuinguruko zer faktorek lagundu dute Sofiaren garapenean? Nola?*

Ikus dezakegunez, faktore askok lagundu diote Sofiari behar den moduan garatzen: bere buruak, ingurune hurbilak eta erakundeak.

Sofiak berak eragina izan du bere garapenean: zoriontsua dela diote ingurukoek, ikasteko gogoa duela, eta haren izaera azpimarratzen dute, besteak beste. Horrek guztiak haren garapen integrala egokia izan dadin laguntzen du, gorabeherak izan daitezkeen arren.

Illo horretan, Sofia garatzeko ezinbestekoak izan diren laguntza batzuk aipatzen dira: familiaren eta lagunen laguntza eta onarpena, hain-

bat elkartetan eta baliabide espezializatueta eskaintzen diren arreta eta estimulazioa, jaio eta egun gutxira arreta goiztiarrera joan izana, eta, azkenik, baina oso garrantzitsua, ikastetxea, han sortzen diren harremanak eta egiten dituzten jarduerak.

Familiaren inguru hurbilak, Down España elkartearen seme-alabak zituzten familiek eta elkarte horretako profesionalak erraztu zuten Sofiaren garapen ebolutiboa.

Sofia ongi moldatzen da eskolan, jarduera asko egiten ditu (irakurketa, psikomotrizitatea, jolasak), eta lan egiteko prest egoteak gelako errutinak gauzatzeko aukera ematen dio. Eta oso harreman estua eta ona du ikaskideekin.

Bideoan, haren bizipoza eta duen desgaitasuna gainditzeko egiten duen ahalegina nabarmentzen dira; izan ere, muga gisa ikusi



» Sofiaren oparia dokumentalaren fotograma bat.

beharrean, zoriontsu sentitzeko arrazoia da harentzat gainerako hurrek lortzen dituzten gauza berberak lortzeko gai dela ikustea.

Ondorioak

Sofiaren oparia dokumentala familia bati buruzko istorio hunkigarria da. Gurasoek haur bat izateko orduan izan dezaketen beldur handienetako bati egin behar izan dio aurre familia horrek. Familiaren indarrari eta duen inguruari esker zoriontsua den neskatiaren samurtasuna eta kemena erakusten ditu. Dokumental ezin hobea da Downen sindromea duten pertsonak eta haien familiek pairatzen duten estigma lantzeko. Haur batek bere bizitzako lehen urteetan izan ditzakeen oparirik handienak maitasuna eta baikortasuna direla erakusten du. Horrez gain, Downen sindromea duten pertsonak gizarteratzeak eta onartzeak gizakiago egiten gaituela eta horrek bizitzari zentzua ematen diola azpimarratzen du.

Erreferentzia bibliografikoak

DOWN ESPAÑA (2019). *El síndrome de down*. <https://www.sindromedown.net/sindrome-down/>

DOWN ESPAÑA (2020). *El síndrome de down hoy*. https://www.sindromedown.net/wp-content/uploads/2020/04/S%C3%ADndrome-de-Down-hoy_inocente.pdf

MAYO CLINIC (2018). *Síndrome de Down*. <https://www.mayoclinic.org/es-es/diseases-conditions/down-syndrome/symptoms-causes/syc-20355977>

POWELL-HAMILTON, Nina (2019). *Síndrome de Down (trisomía 21)*. <https://www.msd-manuals.com/es-es/hogar/salud-infantil/anomal%C3%ADas-cromos%C3%B3micas-y-gen%C3%A9ticas/s%C3%ADndrome-de-down-trisom%C3%ADa-21>



Zoriontsu izateko arrazoia da harentzat gainerako hurrek lortzen dituzten gauza berberak lortzeko gai dela ikustea

RODRÍGUEZ ORTIZ DE SALAZAR, Jesús (2021). *Sobre la crianza*. Zenbait editore.


GARCÍA, Francisco Alberto (2002). "Atención Temprana: elementos para el desarrollo de un Modelo Integral de Intervención". *Bordón: Revista de pedagogía*, 54 (1): 39-52.

hik hasi

Hezkuntza
eraldatzeko

Izan zaitez
HikHasitarra!

www.hikhasi.eus



Ahalduntze eskola

Espazio seguruak sortuz

Maiz oharkabea pasatzen zaizkigun indarkeria egoerak jasaten dituzte haurrek eta nerabeek egunerokoan. Haiek entzutea eta parte hartzeko espazioak eskaintzea oinarritzekoak dira tratu onen kultura sortzeko.



Begoña Ruiz
Bidegintza elkarteko kidea



» Gaztetxoak, lantegi batean, eurentzat seguruak izan daitekeen auzoaren eredua eraikitzen.

Bidegintza elkarteak *Tratuon* izeneko programa garatzen du Ede fundazioarekin batera. *Tratuon* programaren helburua, hausnarketa bultzatzea eta hezkuntza komunitateari haurtzaroan eta nerabezaroan indarkeriarik gabeko ingurune

seguruagoak eraikitzen joateko tresnak eskaintzea da. Begoña Ruiz Bidegintza elkarteko kidearen ustez, indarkeriarik gabeko espazio seguruak eskaintzeko lehen pausoa haurrek eta nerabeek esateko dutena entzutea eta haiei parte hartzeko espazioak eskaintzea da.

Haurrei eta nerabeei tratu ona ematea sustatzen duzue. Tratu txarrak ez dira soilik fisikoak eta indarkeriak bestelako moldeak hartu ditzake. Zein dira horiek?

Bada agerikoa den eta errazago identifikatzen dugun indarkeria mota bat eta bada beste bat hainbeste ikusten ez dena eta, hainbat kasutan, egiturazkoa dena. Guk potentzialtasunaren garapena eta pertsonen ongizatea eragozten duen oro ulertzen dugu indarkeria gisa. Indarkeria emozionala dago alde batetik: iraintzea, umiliatzea, burla egitea, xantaia egitea, gehiegi babestea, espektatiba altuegiak izanik presionatzea, gozatzen edo jolasten ez uztea... Eta indarkeria instituzionalari dagokienez, ikasketa erritmoak errespetatzen ez dituzten proiektuak, ekitatea bultzatzen ez dutenak, segregazioa edota gurasoek seme-alabekin denbora pasa dezaten kontziliaziarako neurririk ez hartzea, adibidez.

Tratu ona emateko komunitateak, gizarteak duen ardura azpimarratzen duzue.

Komunitatea pertsonen arteko eta, bereziki haurrekiko tratu onen kultura sortzeko, benetako apustua dela uste dugu.

Eskola komunitateko parte da. Leku seguruak izan dadin beharrezkoa al da haurrei eta nerabeei parte hartzen uztea?

Bai. Ez dago tratu onik haurren eta nerabeen parte hartzerik ez baldin badago. Ibilbideen diseinua, ekintzak, gure kompetentzien ebaluazioa, eskolaren antolaketa... horietan guztietan parte hartzea garrantzitsua da. Erronka hori

da: haiek entzuteko eta haiek parte hartu dezaten espazio erreala eskaintzea.

Hori guztia aintzat hartuta, eskola leku segurua al da?

Haiei galdetuz gero, orokorrean, eskola lekuri seguruenetako bat dela esaten digute, baina badira eskola eremu seguru gisa ikusten ez duten ikasleak ere. Eta ea seguruagoa nola izan litekeen galdetzen diegunean, haiengatik arduratzea, akademikoki presio txikiagoa sentitzea, jolaserako espazio gehiago izatea, arteak eta naturak toki handiagoa hartzea, gehiago entzutea, hobeto sentitzen lagunduko dieten eskolak jasotzea, hainbat zigor erabiltzeari uztea... gustatuko litzaiekela esaten digute. Seguru sentitzen direnean hobeto ikasten dutela esaten digute ikasleek eta garapenaren teoriak fisikoki, emozionalki, kognitiboki eta sozialki garatzeko segurtasun afektiboa beharrezkoa dela diote.

Zer alderdi hartu beharko genuke kontuan ikasleei tratu ona emateko?

Idea tratu onen hezkuntza komunitatea sortzea da eta hor bi gai badira: alde batetik, familiaren eta eskolaren arteko harremana eta, bestetik, eskolako espazioa *on-line* ere badela. *On-line* espazio horretan, indarkeria gerta liteke: txatetan, etxeko lanekin egindako xantaiak, erronka biralak...

Hezitzaile gisa, ba al dugu haiek babesteko nahikoa kontzientziarik, prestakuntzarik eta gaitasunik?

Kontziente gara eta bagakigu ardura dugula eta ikasleren bat gaizki sentitzen denean laguntza eskaintzen diogu, baina uste dut oraindik arazoak lehenago eta hobeto detektatzen jakiteko kontzientzia eta formazioa falta zaizkigula. Tratu onei dagozkien edukiak curriculumean eta etxeko giroan nola sartzen ditugun berrikusi behar dugu.



Espazio seguruak sortzeko, entzun eta parte hartzen utzi

Haurrentzat eta nerabeentzat espazio seguruak sortu nahi baditugu, haiei entzutea eta parte hartzen uztea da gakoa. Ruizek azaldu duenez, espazio fisikoak (ikasgelak, jolastokiak...) nola koak diren eta zer aldatu dezakegun aztertzea komeni da, gatazkak konpontzeko espazioak sortu daitezke... Eta nork bere burua begiratzea ere garrantzitsua da: umeei afektiboki garen ala ez eta lankideak nola zaintzen ditugun, esate baterako.

Entzutea garrantzitsua da, baina ondoren haiek esandakoa kontuan hartzea ere bai. Hala dio Ruizek: "Euren eskola fisikoki nolakoa izatea gustatuko litzaiekeen galdetuz hasi gaitezke, baina kontuan izan behar dugu ondoren jasotakoarekin zer gertatuko den, zeren entzuten baldin baditugu baina horrek eraginik ez baldin badu, kontrako efektua lortuko dugu".



HIZKI PIZTI

Ikas dezagun irakurtzen eta idazten

Jolasaren bitartez irakurtzen eta idazten

ikasteko **material pedagogikoa**.

Bai ikaskuntza-irakaskuntzan, bai etxeetan erabili daitekeena.

Alfabetoko hizki bakoitzak eta hortaz soinu bakoitzak **Euskal Herriko animalia bat** irudikatzen du.

30€

Bidalketa gastuak 5€.
Bidalketa doan 40€-tik gorako erosketetan.



Kaxa barruan aurkituko dituzu:

Karta handiak: Hizkia larriz eta xehez aurkezteko, animalien irudiari eta haren izenari lotuta.

Karta txikiak: Umeek manipulatu, erabiltzeko eta jolasen bidez hitzak osatzeko.

Laburpen-karta: Kontsultarako, animalia guztien irudiak, izenak, taldeak eta dagozkien hizkiak.

Posterra: Animalia guztien bilduma, dagozkien hizkiekin aldamenean.

Bideoak eta webgunea: Hizkien ahozketasuna lantzeko, karta bakoitzari lotutako ipuin, kanta, olerki, bertso, kontakizun, aho-korapilo, esamolde eta antzerakoen ikus-entzunezkoak webgunean eskuragarri.

Liburuxka eta jolasak: Materialaren argibideak emateaz gain, hainbat jolas proposatzen ditugu karta txikien bidez irakurketa eta idazketa lantzeko. Memoria, azkartasuna, arreta, irudimena, analisia, kooperazioa, hiztegia... garatzeko jolasak.

Egileak: Amaia Egidazu, Iñaki Sanz-Azkue, Lore Erriondo eta Eñaut Aiertzagüena.

Proposamena

A imara, urdua, tamila, taiwera, wolofera, yukatanera, susuera, tamilera, poloniera, nederlandera, japoniera, hindiera... munduan zazpi mila hizkuntza inguru hitz egiten dira. 23 hizkuntza talde daude eta hiru hizkuntza isolatuta daude: japoniera, koreera eta euskara. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira Euskal Herrian? Duela hamar urte ehundik gora hizkuntza kontatu zituzten, bada, migrazioen abiada handitu den neurrian, hizkuntzak ere ugalduko ziren. Zenbat hizkuntza hitz egiten dira gure ikastetxean? Ba al dakigu gure ikastetxeko haurrek eta nerabeek zer hizkuntza dakizkiten? Ama hizkuntzaren

Jim Cummins hizkuntzalariaren arabera, gutxienez hizkuntza bat ondo jakitea beharrezkoa da elebitasunaren eta eleaniztasunaren onurak jasotzeko. Harago, Munduko Hizkuntza Ondarearen Unesco katedraren koordinatzaile Itziar Idiazabalen arabera, ikasleen bizitza eta ikasketa esperientzian oso aberasgarria da ama hizkuntzaren edo



lehen hizkuntzaren aitortza: “Eskolak jakin behar du zein den bertara iristen diren haurrek dakarten lehen hizkuntza, beren familiarik, etxetik, gizarte testuingurutik: gaztelania, euskara, biak, atzerriko hizkuntzaren bat edo gehiago...”. Idiazabalen aburuz, euskal eleaniztasuna helburu izanik, ikasleen abiapuntua ezagutu behar da: “Atzeritar hizkuntza batekin datozenen kasuan, etorrikin jatorrikoak direlako seguruenik, beste ikasleek ez duten aberastasun hori kontuan hartu behar da hasteko, nahiz eta eskolan hizkuntza hori ez den eskola-hizkuntza izango”. Hizkuntza eta kultur aniztasuna beti hartu behar dira kontuan katedraren koordinatzailearen aburuz: “Hiztunarentzat nahiz taldekideentzat altxorra baitira, zoritxarrez, ez eskolan, ez gizartean, oraindik behar beste baloratzen ez badira ere”.

Eskolarako baliabideak

Ikastetxean hamaika lanketa eta ekintza egin daitezke ama hizkuntzei lekua egiteko: eskolako hizkuntzen mapa; eskolako hizkuntzen oinarritzko hiztegi txikia; zorion-kantak eskolako hizkuntza ugarietan ikastea; eskolako hiztun anitzak gonbidatzea... eta Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna arrazoi aproposa izan daiteke horretarako. Bizipoza eskolak gai hori lantzen duten lau elkarte hartzen ditu bere baitan: Kale Dor Kayiko ijitoen elkartea, Etiopia Utopia elkartea, Ndankndank senegaldarrek eta euskaldunek osaturiko elkartea eta Chernobilen lagunak elkartea. Bizipoza eskolaren webgunean jatorri bakoitzari buruzko informazioa aurkitu daiteke, hala nola, mikrodokumentala, abestia eta ipuina. Horrez gain, eta berariaz Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Egunari begira, bi abesti proposatzen ditu Bizipoza eskolak, ikastetxeetan haurrekin lantzeko: Pirritx, Porrotx eta Marimototsen *Koloretako maleta* eta 1992ko Nafarroa Oinezarako egindako *Arraroa noski* abestia.

Ama hizkuntzen Eguna, bengaleraren omenez

Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna otsailaren 21ean ospatzen da kultura aniztasuna eta eleaniztasuna sustatzeko asmoz, 2007az geroztik. Ospakizun horren oinarrian, bengaleraren aldeko mugimenduari egiten zaion aitortza dago. Izan ere, Bangladeshen bengaleraren aldeko Mugimenduaren Eguna ospatzen zuten 1952tik ilbeltzeko egun horretan; urte hartan, Bangladesh Pakistan estatuaren barruan zegoelarik, bengalera-hiztun mordoa bildu zen Dhaka hirian beren hizkuntza-eskubideen alde manifestatzeko, eta pakistandar polizia tiroka hasi zen jendearen kontra.

Handik 30 urtera, Kanadan bizi zen bangladeshtar komunitateak Unescori eskaera egin zion otsailaren 21a Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna izenda zezan, manifestazio lasgarri haiek gogoan hartuta. Nazio Batuen Erakundeak 2007an eman zion eskariari baietza, eta otsailaren 21a izendatu zuen Ama Hizkuntzaren Nazioarteko Eguna. Orduz geroztik, munduko herriek erabiltzen dituzten hizkuntza guztien zaintza eta babesa sustatzeko eguna da.

hazi hezi

Haziera eta heziketa aldizkaria

Eskuratu urtean
4 ale 20 eurotan

Harpidetu
eta izan
HikHasitarra

www.hikhasi.eus





Isaak Aranberri Agirre eta Edurne Aizpurua Mendizabal

Zumaienako zuzendari orokorra eta HHko irakasle eta koordinatzailea

Atzeko atetik

Pertsonago izaten erakutsiko digun hezkuntza komunitatea

54

Gizakia gizaki denetik, historian zehar ez da izan garai lasairik, gatazkarik gabeko arorik. Egungoa ez da inondik inora ere salbuespen bat. Berehalakotasuna nagusitu den aro postmoderno eta globalizatu honetan, dena ORAIN behar dugun honetan, jokoaren arauak hankaz gora geratu zaizkigu. Eskoletan, egokitu zaien garaian ito gabe moldatzeko eta bizi-tzeko tresnak eman behar dizkiegu haurrei eta gazteei. Eta zein dira, bada, gaur egun eta etorkizun laburrean gizarteak eskatzen dituen ezaugarriak?

Inoiz baino gehiago, gizarteak PERTSONAK behar ditu. Gizarteak GIZALEGEA behar du: adimen artifizialak eta teknologiak inoiz eman ezin izango dituen ezaugarri bakarrak, hain zuzen ere. Gurean, Zumaien, pertsonagoak izaten irakatsiko duen hezkuntza eredu bat garatu nahi dugu, hezkuntza proiektu komunitario aberats bat.

Gizakiak harremanean eraikitzen diren moduan, gizarteak elkarlanean eraiki izan dira

beti historian zehar. Euskal Herrira etorrira, AUZOLANA izan da beti gure herria eraikitzeko tresna nagusia. Eta gure eskolak iturri horretatik edan nahi du: banakakotasunak eskaintzen dituen indarguneetatik abiatuz, sare berriak elikatuz eta indartuz, elkarlanean eta auzolanean herrigintza bultzatuz. Eta bai, herria aipatzen dugu, sinesten dugulako eskolek ezin dutela eragile isolatu izan: eskolak herrian eragin behar duelako eta, herriak, berri, eskolan. Laboaren abestiak hala dio: "... lana eginaz goaz aurrera kate horretan denok batera gogorki loturik gaude..."

Aitorren hizkuntz zaharrak ezin argiago bereizten ditu bi hitz: hezkuntza eta heziketa. Eskolaren ardura da hezkuntza, edukiak eta jakintza transmititzea. Heziketa, berriz, pertsonen eraikuntza, baloreen transmisioa, komunitate guztiaren ardura da. Zumaien garbi dugu gure norabidea: hezkuntza ardatz harturik, gure herrian eta inguruan gizarte saretuko duen giltzarri izatea, robotek eta ordenagailuek inoiz eman ezin izango duten GIZATASUNA herriari eskaintzeko.

Psikogenesia

Idazketa-sistemaren ikasketa-prozesua

Umeek euren kabuz ikasten dute idazten eta irakurtzen

Baieztapen horrek zalantza sortu diezaioke norbaiti, baina denborak eta esperientziak frogatu dute hala dela. Idazketa sistemaren ikasketa prozesuari heldu dio Elena Laiz irakasleak lan honetan eta hamaika irakaslek eta Laizek berak trukaturako esperientziak jaso dira.

Monografiko berria



Jakin-mina zorroztu

*hik hasi*ren produktu
berriak webguneko dendan
daude eskuragarri. Poltsa,
estutxe eta koaderno
hauekin urtea ezinhobe
hasiko duzue!

